

ZENBAT BURU

Ion Loiola

BERBETAN

Arrate Juaristi,
Mikel Alberdi pres
aren emaztea

KIROL

ERREPORTAJEA

Eskolarteko kirolen
sari banaketa

KULTURA

Ongarri Zine
Klubaren balorazioa

GAZTAROA

Dixieland Jazz Band
musika talde berria

BARRREN

1999ko ekainaren 4a
VII. urtea - 281. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

eskola kirola



“Garrantzitsuena ez da irabaztea, parte hartzea baizik”

UDAL EUSKALTEGIAK



1999ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

EGA azterketa prestatzeko ikastaro berezia.

- Ekainaren 28tik uztailaren 23ra eta irailaren 1etik 17ra.
- 3 ordu goizez.
- Atariko proba Euskaltegian bertan.
- Prezioa: 14.000 pta.
- Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 7.500 pta.

EUSKALDUNTZE maila guztiak

- Ekainaren 28tik uztailaren 23ra.
- 5 ordu goizez.
- Prezioa: 14.000 pta.
- Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 7.500 pta.

BARNETEGIA ZERAINEN

Gipuzkoako Udal Euskaltegiok antolatuta

- Uztailaren 1etik 15era, astebukaerak barne.
- Prezioa: 37.900 pta.

MATRIKULALDIA

- Ekainaren 7tik 24 ra.

DEBATE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

ELGOIBAR: Nafarroa Enparantza, 2 · Tel: 943 74 27 31
Posta elektronikoa: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net
MUTRIKU: Txurruka Enparantza, 1 · Tel: 943 60 30 94
Posta elektronikoa: eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net
DEBA: Ifar-kale, 12 · Tel: 943 19 22 36



Aretxabaleta · Arrasate · Azpeitia · Beasain
Bergara · Deba · Eibar · Elgoibar · Errenteria
Eskoriatza · Hernani · Hondarrabia · Irun
Lasarte-Oria · Legazpi · Mutriku · Pasaia
Tolosa · Urretxu · Zarautz · Zumarraga

Uztailean: Ikastaro trinkoak Elgoibarren.

Maila guztiak. Eman ezazu izena!!! (talde mugatuak).

.....
Ekainaren 15a baino lehen (plaza mugatuak).

Informazioa:


Tel.: 943 74 40 40

Faxa: 943 74 16 54

E-maila: ils@jet.es

HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN

(alemana,
frantsesa,
ingeleza)



Hizkuntz Soluzioak



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

IMH Eraikuntza
San Roke Auzoa 1 - Posta Kutxatila 37
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA



ION LOIOLA

Arduraz kontsumituz, gizarte solidarioagoa sortzen

“Beti gastatu izan dut benetan behar dudana baino gehiago. Ez dakit zergatik, ordea. Astearen hasieran nahikoa diru dut, eta hurrengo astera arte iristeko adina izaten dut eskuetan. Baina astearen amaierarako ez zait iristen eta nire gurasoei edo anai-arrebei eskatu behar izaten diet. Aste bukaera iristen denean, oraindik dirua zertan joan zaidan pentsatzen aritzen naiz, eta garrantzirik gabeko ha maika gauza etortzen zaizkit gogora, horietako bat ere ez da beharrezkoa. Eta bi erantzun besterik ez ditut aurkitzen: ez dakit neure burua administratzen, edo kontsumoa eta gastatzea neure borondatea baino indartsuagoak dira.”

Nerea

Irakurri duzuen gertaera pertsona konkretu batena da. Zenbakien eta irakurketa orokorren atzeran pertsonak daudela gogoratzea garrantzitsua da.

Kontsumoa industri gizartearekin batera sortu zen, baina ez da inoiz orain duen garrantzia hartzera iritsi. Gizartean aldaketa gertatu da eta bizi-rauteko behar zena kontsumitzen zuen gizartetik, kontsumo masiboko ekonomiara pasa gara. Kontsumoa ez da jada bitarteko bat, helburua baizik, eta honi KONTSUMISMOA deitzen diogu.

Errealitate honen aurrean ondorengo salatu nahi dut:

▸ Gizarteak, pertsonak, daukatenaren arabera epaitzen ditu, ez direnaren arabera.

▸ Lehen Munduko biztanle gehienok dugun neurri gabeko kontsumoa Hirugarren Munduko biztanleen eta natur baliabideen kontura egiten dugu.

▸ Kontsumoaren lehen irizpidetzat ekonomia hartzen dugu eta ez ingurugiroarekiko begirunea edo langileentzat bidezko soldata ziurtatuko duen justizia.

▸ Kontsumoaz pentsatzean kolektibitatea eta elkartasuna hartu beharko genituzke oinarritzat,

lan baldintza eskasen aurrean ardura azalduz, gure dirua besteekin banatuz, etab.

Hala ere, egoera honen aurrean zereginetatik badugula iruditzen zait:

▸ Beharrezkoa ez dena sahiestu, publizitatearen eta modaren eraginetik ihes eginez.

▸ Kontsumorako irizpideak osatu, ekoizpeneko baldintzak, kalitatea-prezioa-beharraren arteko harremana, ingurugiroan sortutako kaltea...

▸ Justizia eta elkartasunaren gutxieneko irizpideak betetzen ez dituzten produktuak eta enpresak gure kontsumotik kanpo utzi.

▸ Eguneroko produktuak batzuk bidezko merkataritzakoekin ordezkatu.

Badira gure gizartean bidezko merkataritzari lotutako esperientzia eta ekintza ugari. Mundu gero eta globalagoa da, erosten ditugun produktuak urrutiko herrialdeetan egiten dira. Hirugarren Munduan lan baldintzak oso txarrak dira, emakumea baztertu egiten da, haurrak lanean aritzen dira, natur baliabideak agortzen ari gara... Produktu horiek erosten, ordaintzen dugunaren zati txiki bat bakarrik iristen da herrialde haietara, gainerako guztia multinazionalen esku gelditzen da. Herrialde garatuen eta azpigaratuen arteko harreman ekonomikoak ez dira berdintasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritzen.

Egoera honi aurre egiteko aukeretakoa bat, elkartasun dendetan erostea da. Bidezko merkataritzako produktuak zuzenean ekoizleei erosten zaizkie eta haiekin epe luzeko harremana izaten da. Lortutako irabaziak elkartearantz dira eta honek gizarte-ekintzetarako baliabide bezala erabiltzen du dirua (etxebizitzak, eskolak,...). Beraz, elkartasun dendetan erostea aukera bat da, poliki poliki gure kontsumo arduratsua batekin gizarte duin eta solidarioagoa bat sortzearen lan egitea.

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga


INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



Eskerrak

Mendaroko Plataforma Aktiboak *Euskal Presoak Euskal Herrira* lemapean egindako ibilaldian parte hartu zuten guztiei, edo etxeko balkoietan eta lehioetan zapiak jarri dituzuenoi, eskerrik beroenak eman nahi dizkizu. Aldi berean, Mendaroko Udala eskertu nahi du frontoia uzteagatik.

Gure iritziz, denok daukagu bake prozesu honetan zerikusia, beraz, edonork lan egin beharko luke orain arte bizi izan ditugun garaiak menperatzeko.

Ez du balio besteak zer egiten duten begira egotea, lanari ekin behar zaio, itxaropena ilusio bat bakarrik izan ez dadin.

Mendaroko Plataforma Aktiboa

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

◆ Erredakziora etorri diren **13 eta 14 urte bitarteko gazte koadrila bateko lagunek euren adinekoentzako egokiagoak diren barrakak eskatzen dituzte**, “uste dugu barrakak ekartzeko ardura dutenak ez direla gure adinekoetaz gogoratu. Maiatzeko gidan, Trinitate jaietako egitarauan barrakak (pluralean) ekarriko zituztela jartzen zuen eta ametsak egin genituen, baina ekarri dituzten barrakak ikusi ditugunean, *Txiki Park* eta *Dragoia* pena handia hartu dugu, oso gaztetxoentzat baitira. Orain dela 2 urte sikiera Dragoi handia ekarri zuten eta Gabonetan “Ovnia” izenez ezagutzen den barraka”.

◆ Herritar batek honako kexa hau azaldu digu, “**Ondo iruditzen zait gune urdinetan aparkatuta dauden autoei multak jartzea. Baina, multak goizeko lehen orduetan bakarrik jartzea eta egun zehatzetan gainera, ez zait jokabide egokia iruditzen.** Udaltzainek irizpide garbirik gabe jokatuz gero, gidariok ez baitakigu autoa noiz eta non aparkatu.

◆ **Trinitate jaietako egitaraua zoragarria iruditu zaion herritar batek Udala txalotu nahi du**, “oso ongi pasa ditut Trinitateak eta argi geratu da 4 edo 5 ekintzarekin oso jai politak antolatu daitezkeela. Musikeskolako haurrek Plaza Handian eskaini zuten dantza saioa, Bandaren kontzertua eta ‘Tirri Terra’ taldearen ikuskizuna nahikoa dira herriari alaitasun eta kolore piska bat emateko. Aurtengo egitaraua oso egokia iruditu zait eta hurrengo urteetan Kultura saila eta Udala hartu duten bidetik jarraitzea animatu nahi nituzke”.

◆ **Emakume batek Lanbroa taberna eta bereziki Agustin Alonso txalotu nahi ditu ostegunean, hilak 27, San Lazaro egoitzako edadetuei eta langileei eskaini zieten meriendarengatik.** “Oso detaile politxa izan zan eta borondate oso ona erakutsi zaben”.



B A I , E S A N ?



Iñigo Etxaniz

Zikloturista

Iristear dagoen udaran zikloturistak azkenengoz ibili ahal izango dira errepidean kaskorik gabe. Bideko segurtasun arauak izandako aldaketan arabera, kaskoaz gain, erreflektanteak erabili beharko dituzte, alkoholemia proba egitera behartu ditzakete eta beste zenbait betebeharrak ere izango dituzte txirrindulariek. **Iñigo Etxaniz zikloturistarekin izan gara arau berriei buruz daukan iritzia jakiteko.**

- **Zer iruditzen zaizu kaskoa eta erreflektantean derrigorez eraman behar izatea?** - Ondo iruditzen jata, beti ere seguridade aldetik mehoratzeko bada. Nik, kaskua beti erua-tan dot, eta erropak ere, eskandalosuak izan gabe, argixak erua-tan saiatzen naiz.

- **Ongi al deritzozu zikloturistei alkoholemia kontrola egitea?** - Ez dot uste askorako balioko dabanik. Mozkortuta egonez gero, normalian jendia ez da bizikletan ibiltzen. Kotxe bateko konduktoriak bizikletadun bat harrapau ezkerro, hari in biharko litzaioke alkoholemia, ez bizikletan duanari.


- **Parlamentuak bizikletak paraleloan joateko eskaera onartu du.** - Ni paraleluean jutilan aldekoa naiz. Bakarrik jun ezkerro kotxiek ez dabe guregan arretarik ipintzen. Paraleluean jun ezkerro, ordia, kotxia gelditxu itxen da eta martxia aldatzen dau, umore txarrez bada ere.

- **Arau berriekin istripuak gutxituko direla uste al duzu?** - Lege horrek danak ipintzia baino, hobe izango zan kaminuak mehoratzia. Bide gorrixak itxia eta kaminuetako zuluak konpontzia. Bide baztarrak ez dia batere zabalak eta daudenak zikinak daude. Arauak jartzen ez dabe dirurik gastatzen, alderantziz, multekin benefiziua lortzen ditzue.

- **Auto gidariak errespetatzen al dituzte txirrindulariak?** - Danetarik dao, errespetatzen dabenak eta inungo konsideraziorik ez dakenak. Baina, ziklisten artian ere badaoz legiak errespetatzen ez ditzuenak. Danon aldetik borondatia ipini biharko litzake. Azkenian, kotxedunak ez dau ezer galtzen, segundu bat gelditxuta nahikua, baina danok prisaka ibiltzen gera. Gero, debilenak beti ematen joko kulpia.

ESKERTZA

1999ko maiatzaren 30ean, 80 urte zituela hil zen **RUFINO MAGUREGI OSORO**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



● Udako Euskal Unibertsitateko joateko dirulaguntzak

Elgoibarko Udalak. Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako 27. Udako ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntzak emango dizkie ikasleei eta langabetuei Laguntza matrikula ordaintzeko izango da, eta egonaldiaz norbera arduratuko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko euskara zerbitzura jo dezakezue (Kultur Etxean) edo goizez bertara deitu (943 74 43 66).

● Udala San Pedroko bizilagunekin bildu da auzoko guneen erabilera aztertzeko

Elgoibarko Udaleko arduradunak San Pedro auzoko gazteekin elkartu dira, Udalak auzoan bereganatuta dauzkan instalazioei eta guneei emango zaien erabilera aztertzeko. Elgoibarko Udalak, San Pedro auzoko tren geltokia eta tunela erosi ditu, eta baita hainbat lur zati ere. Bertan, lokal soziala eraikitzeko asmoa dauka, auzotarrek nahi dituzten ekintzak burutzeko. Lokal soziala gestionatzeko egokiena, bizilagunek elkarrekin bat eratzeko dela uste du Udalak. Beraz, ekimena martxan jartzeko bere esku dauden bideak ipintzeko prest azaldu da Udala.

● Albitxuriko proiektua Diputaziora bidali du Udalak hainbat arau aldatzeko

Albitxuriko gune industrialaren egiteko hainbat arau aldatu behar ditu Gipuzkoako Diputazioako Hirigintza Sailak. Horretarako, Udalak proiektua Diputaziora bidali du, urbanizazio proiektuarekin eta plan partzialarekin batera, eta ekainaren hasierarako aldaketak eginda izatea espero da. Baiezkotzea emanez gero, udako oporren aurretik hasi ahal izango dira lanak Albitxur.

Jai giroa nagusi Trinitate jaietan

Jende ugari izan zen jaietarako antolatutako ekitaldietan

Joan den asteburuan jai giroa izan zen nagusi Elgoibarko kaleetan. Trinitate jaietako ekitaldiez gozatzeko aukera izan zuten herritarrek eta jaien usainean bertara etorritakoek. Larunbat arratsaldean, Plaza Handira gerturatu zirenek, Musikeskolako ikasleen dantza jaialdiaz gozatu ahal izan zuten. Saioan, Udalaren Txistulari Banda eta Haritz Dantzari taldea izan zituzten lagun.

Gauean, helduek, gaztetako garaiak gogoratu ahal izan zituzten, Udalaren Musika Bandaren doinuekin dantzan aritu baitziren Plaza Handian. Gazteek, aldiz, Madalako parkean, herriko tabernarietara antolatuta, hiru rock talderen musika gogorra entzun ahal izan zuten. *Brutal Thin*, *Norbaitz* eta *Eraso* taldeek Madala aldeko giroa berotu zuten.

Igandean ere izan zen zer ikusirik. Eguerdiko 12:00etatik aurrera Musikeskolako haurren tanbor soinuek alaitu




Tirri Tarra fanfarrearen ikuskizunak eman zien amaiera aurtengo Trinitate jaietara.

zituzten kaleak. Tanborradako karroza ikusgarriak haur eta helduak harritu zituen. Era berean, aipagarria da Leku Eder parkean jarritako artisautza azokak sortu zuen ikusmina. Bertara gerturatu zirenek eskulanak ikusteko aukera paregabea izan zuten. Jaietara amaiera emateko Tirri Tarra fanfarreak jende asko bildu zuen Foruen plazan eta bere doinu eta dantza alaietara agur esan zuten Trinitate jaietara datorren urtera arte.

Urrezko Idazluma jaso dute Gotzon eta Roman Garate anaiek

Euskal kulturaren eta Bizkaiaren izena hedatzeko Garatetarrek egingako lana saritu dute Bilbon

Gotzon eta Roman Garate anaiek, *Urrezko Idazluma* jaso zuten joan den astelehenean, maiatzak 31, Bilboko 29. Liburu Azokan. Deustuko Unibertsitatean katedradun diren bi anaiek, 30 urte baino gehiago daromatzen gaitzate askori buruzko idazlanak argitaratzen. Beraien ibilbidearen errekonozimendu



Gotzonek (ezkerrean) eta Romanek (eskuman) Bilboko 29. Liburu Azokan jaso zuten saria.

moduan jaso dute saria. Euskal Kultura eta Bizkaiaren izena hedatzen egindako lana eskertzeko, Bizkaiko Diputazioak urtero banatzen ditu Urrezko Idazlumak. Saria, Gotzon Garatek bere ikasle direnei eta izan direnei eskaini zien. Romanek, berriz, euskaldun berriei.

Kurtsoan ikasitakoaren erakustaldia egin zuten Musikeskolako ikasleek

Joan den astean Musikeskolako ikasleek, ikasturte amaierako kontzertuak eskaini zituzten Herriko antzokian. Asteartean, asteazkenean eta ostegunean hainbat musika mota ezberdin eta instrumentu ugari entzuteko aukera izan zuten bertara urbildu zirenek. Bestalde, larunbat arratsaldean, Trinitate jaietako ekitaldien barruan Musikeskolako dantza ikasleek saioa eskaini zuten Plaza Handian eta igandeko tanborrada antolatzen ere Musikeskolako arduradunak aritu ziren. Maiatza, dantzaren eta musikaren hilabetea dela erakutsiz, kurtsu guztian egindako lana jendaurrean azaltzeko egin dituzte ekitaldi hauek guztiak.



Debabarreneko presoak eta beraien senideak omendu zituzten igandean

Debabarreneko Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak antolatutako martxak Elgoibarren izan zuen amaiera, igandean, maiatzak 30. Eguerdiko 13:30ak inguruan Madalan bat egin zuten Eibartik eta Itziartik abiatutako martxek. Ondoren, Plaza Handira joan ziren eta ekitaldi berezia izan zen bertan. Bertsolarien saioaren ostean plazan bildutakoek omenaldia eskaini zieten presoari eta beraien senideei. Haritz Dantzari Taldeko kide batek aureskua dantzatu zuen beraien omenez. Eguerdian Madalako parkean bazkaria izan zuten eta bazkal ostean trikitilariek alaitu zuten giroa.



Ignacio Mugerza independentea da EA alderdiko zerrendaburua

Ignacio Mugerza Perelló (argazkiaren erdian), hautagai independentea, aurkeztu du EA alderdiak zerrendaburu gisa. Hauteskundeetarako talde gaztea osatu dutela adierazi zuten. “Gure go-goarekin eta ilusioarekin eta zaharren esperientziarekin herriaren alde lan egingo dugu”, esan zuen Ignacio Mugerzak alderdiaren aurkezpen ekitaldian. Bertan, Jon Goikoetxea eta Iñaxio Oliveri ere izan ziren eta beraien esanetan, “hauteskunde municipalak garrantzi berezia daukate herriarekiko hurbiltasunarengatik. Hautagaiek giro politiko berria aprobetxatuz ilusioa erakutsi behar dute erronka berrien aurrean”.



Giro ederra Herri Eskolako ikasleen jaialdian

Herriko Antzokian gurasoak, ikasleak eta irakasleak bildu ziren joan den ostiralean, hilak 28, Herri Eskolako ikasleen jaialdia gozatzeko. Ikasturte amaierako jaialdian, 2 urtetik hasita 6. mailara arteko ikasleek artista doaiak erakusteko aukera izan zuten eta bertaratutakoek txalo zaparradaz saritu zituzten gaztetxoak. Esan digutenez, oso giro ona izan zen Herriko Antzokian.

● Hauteskundeetan botoa korreoz emateko argibideak

Ekainaren 13an egingo diren hauteskundeetako botoa korreoz eman nahi, eta nola egin behar duten zalantzak dauzkatenek, dudak argitzeko aukera izango dute. Horretarako astearte eta ostegunetan arratsaldeko 20:00etatik gaueko 22:00etara bitartean Kimetz elkartera (Ubitarte, 11) jo dezake nahi duenak eta bertan emango dizkiote azalpenak.

Ba al zenekien *Guass*-ean aldaketak izan direla?



ALFREDO DOMINGUEZ
32 urte, mantenimendua

Bai. Lanbroakoak eta Lojantzikakoak hartu dutela entzun dut. Nik giro sanoa dagoen diskoteka bat nahiko nuke herrirako.



AMPARO RICO
27 urte, umezaina

Bai, eta ondo iruditzen zait. Lehen gaztetxoak bakarrik joaten ziren bertara. Orain, tabernak istean herrian, dantza egiteko leku bat izatea guztion onerako da.



YOLANDA AVILA
25 urte, etxeandrea

Badakit aldatu dutela, baina oraindik ez naiz bertan egon. Oso ongi iruditzen zait jende guztiarentzako diskoteka bat izatea.



SARA GURRUTXAGA
45 urte, etxeandrea

Bai, eta oso ongi iruditzen zait. Gazte asko joango dela pentsatzen dut eta hori Elgoibarrentzat positiboa izango da. Pentsatzen dut aldaketa onerako izango dela.



IVAN ALVAREZ
33 urte, instaladorea

Bai, jakin dut eta ados nago aldaketarekin. Joan den larunbatean bertan izan nintzen eta herriko jendea zegoen. Lehengo ambienteak kanpoko jende gehiago ekartzen zuen.



CRISTIAN ALVAREZ
18 urte, ikaslea

Bai, eta orain hobeto dagoela uste dut. Musika hobea da eta herriko jende gehiago dago. Orain jarri duten bezala Guass elgoibartarrontzat diskoteka ona izango da.

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.
Zatoz informazio eske!



Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrilaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:
Olaso industrialdea
Olasoipe, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 38 - 74 23 71

Martxan dagoen
AUTOZERBITZUA alokatzen da
San Bartolome kalean.

Tel. 943 74 12 26 / 74 21 28

UDALEKU IREKIAK

Eskolaurreko 1-2-3

Goizez, 9:30-12:00

LH 1-2 mailak

Goizez, 9:30-12:30

PREZIOA: 3.500 pta.

ZER: Irteerak, jolasak, San Fermin txiki...

uztailaren 1etik 21era
astelehenetik ostiralera


IZENA EMATEKO

Ekainaren 7tik 15era

ELGOIBARKO IZARRA K. E.

Ubitarte 4, behea

Tel: 943 74 16 26, M^a Jesus (goizez)



ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarrako ATXUTXIAMAIIKA B.T.
LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala eta Eusko Jaurlaritza



UDALEKU ITXIAK

LHko 3, 4 eta 5. mailakoentzat

Aubixan

IRTEERA:

Uztailaren 5ean, astelehena
goizeko 10:30ean Plaza Handian.

ITZULERA:

Uztailaren 11an, igandea
eguerdiko 13:00etan San Pedron.

PREZIOA:

12.000 pta

ZER:

Mendi irteerak
Jolasak
Eskulanak



IZENA EMATEKO
ekainaren 15a baino lehenago:
ELGOIBARKO IZARRA
Ubitarte, 4 behea
Informazio gehiago:
943 74 16 26, M^a Jesus (goizez)

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarrako ATXUTXIAMAIIKA B.T.
LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala, Eusko Jaurlaritza eta
Gipuzkoako Foru Aldundia



●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Julene Rodriguez Lizundia (Maiatzak 3)
- Angel Rey Migales (Maiatzak 11)
- Telmo Fernandez-Campium Etxabe (Maiatzak 20)
- Elsa Astigarraga Bergua (Maiatzak 23)
- Gorka Alonso Fernandez (Maiatzak 24)

●●●● EZKONDUTAKOAK ●●●●

- Antxon Santiago Rodriguez eta Maria Aranzazu Toribio Astigarraga (Maiatzak 8)
- Sireno Aizpurua Duran eta Raquel Alonso Torres (Maiatzak 15)
- Alberto Iriondo Elustondo eta Monica Andonegi Zubiaurre (Maiatzak 15)
- Aitor Telleria Rivas eta Ana Maria Garcia Gonzalez (Maiatzak 22)
- Jose Ramon Cid Perez eta Celia Barandela Sabucedo (Maiatzak 22)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Patricia Avelino Morales, 90 urte (Maiatzak 2)
- Miguel Balzola Arrillaga, 74 urte (Maiatzak 10)
- Felipe Urbietta Garate, 83 urte (Maiatzak 20)
- Jose Luis Calleja Ruiz, 36 urte (Maiatzak 22)


Jose Conde Babarro

(1923-1983)



- 1923ko abuztuaren 11an jaio zen, Orenseko Albariz bailaran, kaletik 2 kilometrorra, nekazal giroko familia batean. 9 anai-arreba izan ziren, bera seigarrena.
- Josek, gaztetan ezin izan zuen eskolarik ikasi, bizi zen lekuan ez baitzuen horretarako aukerarik. Gaztetako urteak baratzean eta soroan laborantzako lanak egiten pasatu zituen, familiari laguntzen. Jaioterrian, laborantzako lanak egin zituen hainbat sorotan, eta koadrilan segaketa lanak egitera joaten zen Castillara.
- Lagun koadrilan San Vitairoko eta beste hainbat lekutako erromerietara joaten zen. Madrilen egin zuen soldadutza.
- 1947ko San Bartolome jaietako Txiki Egunean heldu zen Elgoibarrera 125 pezetarekin eta lanik gabe. Handik egun gutxitara hasi zen San Pedroko fabrikan lanean, eta han aritu zen 1961 urtera arte.
- 1951an Galizian ezkondu zen Carmen Borrjorekin, eta 6 seme-alaba izan zituzten, denak Elgoibarren jaioak.
- San Pedroko fabrikan altzairuzko labearen arduradun zela, lana utzi zuen *Bar Orense* taberna irekitzeko, gero *Errezabal Polleria* izan zena. Taberna izen handikoa izan zen eta bezero askokoa. Oso popularra zen eta hemen sortu zen zezenzaleen *Peña Parrita* famatua. 1981ean utzi zuten Josek eta familiak taberna.
- *Zubi Ondo* elkarteko Tomas Conde, xake txapelketak antolatzen dituena, Joseren semea da
- Jose, oso ezaguna zen herrian, hizlaria eta serioa. Bere zaletasunetako bat, lagun artean kartetan jokatzea zen.
- Familia giroko gizon hau, oraindik sasoiko zela, gaixoak jota hil zen 1983ko ekainaren 25ean, 59 urte zituela.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01



Aste honetako erretratu, izenik eman nahi ez duen herritar batek laga digu. Ez da gaur goizeko argazkia, 1920. urtean ateratakoa baita. Argazkian agertzen diren koadrilakoek, soldaduzkara joateko zozketa eguna zela-eta, bazkaria egin zuten. Tripa bete ondoren, 'txokor' eder bana erre eta argazki bat ateratzea pentsatu zuten, pasatako egun ederra gogoratzeko.

Ezkerretik eskuinera, zutik:

Amado Uncilla "Naparra" (†), Txomin Iribarren (†), Zakarias Azpiazu (†), Valentin Urreta "Kimuku" (†), Fructuoso Iriondo (†), Kasi-miro Izagirre "Upai" (†).

Behean eserita: Joxe Irigoien (†) (bergaratarra) eta Joxe Ecenarro "Koipia" (†).

Garai haietan Afrikan soldaduzka egin beharra ohizkoa zen, baina inori ez zitzaion hain urrutira joatea gustatzen. Gainera, gaixotasunen bat hartuta bueltatzeko arriskua zegoen. Hori delata, zozketa egunean koadrilan bildu eta ahalik eta destino hurbilena tokatu izana ospatzeko, bazkari eder bat egiten zuten.



Jesus M^a Gabilondo Urain

Delineatzailea - Topografoa
1397. kolegiatua

Erreformak · Etxebarruko Lanak · Lan Topografikoak
Ubitarte, 4- 5. esk. · Tel: 943 74 45 99 · Faxa: 943 74 18 91



Errosario, 34 - 1ezk.
☎ 943 74 42 83


Soziedadatea jartzeko aproposa

TABERNA-JATETXEA SALGAI

P. Muguruza etorbidean,
200m², amueblatua.

Oso merke.

Informazioa aurrez aurre.



GILLERMO GARATE URZELAI

EAJ - PNV



◆ **Elgoibarren zer dago faltan? Eta zer sobran?**

- Giza-kalitatea eta prestakuntza teknikoa daude sobran. Bekaizkeria eta gaizkiesanak erbesteratzea falta zaiola uste dut.

◆ **Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein ezkutatuko?** - Foruen enparantza erakutsiko nioke eta ezkutatu, berriz, industri hondakinak.

◆ **Defini ezazu zure burua bi hitzetan.**

- Irudimena, lana eta konstantzia.

◆ **Zein da azken aldian entzun duzun berririk onena?**

- ETAREN su-etena eta Lizarrako akordioa.

◆ **Aukera emango balizute zer aldatuko zenuke zure bizitzan?**

- Nire emazteari eta seme-alabei denbora gehiago eskaini ahal izatea.

◆ **Zein egunkari irakurtzen duzu?**

- Deia, Gara, Egunkaria, Correo, Diario eta Mundo. Hauek guztiak tar-teka irakurtzen ditut hobeto informatuta egoteko.

◆ **Norekin emango zenituzke pare bat ordu hitzetan?**

- Elgoibarren onurarako interesgarria izan daitekeen edozeinekin.

◆ **Zein da gehien baloratzen duzun eskubidea?** - Askatasuna.

◆ **Erretzailea al zara?** - Ez naiz erretzailea.

◆ **Praktikatzen al duzu kirolrik? Zein?**

- Denbora faltaren eta izan nuen istripuaren ondorioz gutxi praktikatzen dut, baina bizikletan eta esku pilotan ibiltzen naiz.

◆ **Erabiltzen al duzu telefono mugikorrik?** - Bai, derrigorrezkoa iruditzen zait, Alkatea herriko gai guztiez informatuta egoteko.

◆ **Etxeko lanik egiten al duzu? Zein?**

- Bai. Ontziak garbitu eta oheak egiten ditut.

◆ **Emaiguzu arrazoi bat ekainaren 13an zuri botoa emateko.**

- Alkate izan naizen 4 urte hauetan, Elgoibarrek dinamika sendoa hartu du. Orain, bosgarren abiadura sartu nahi dut Elgoibar dagokion lekuan jartzeko.

- ADINA:** 50 urte
JAIOTERRIA: Elgoibar
IKASKETAK: Arkitektura
LANBIDEA: Alkatea
EGOERA ZIBILA: Ezkondua
ZALETASUN BAT: Irakurtzea
LIBURU BAT: "Servir al ciudadano"
KIROL BAT: Txirrindularitza eta futbola
JANARI BAT: Makailaoa

Legealdirako programa

■ Legealdi honetan (95-99) izan dugun diru sarrera eta irteeren gestio berbera.

■ Dirua aurreratzeko eta Elgoibarren bizi-kalitatea hobetzeko zergak eta gasto munizipalak kontrolatzea.

■ Herria erreabilitatzea (Alkortako, Jarbeko... industria eraikuntzak deusezteza), herria apaintzea (Txankakua zubia, Salvatore...), etxebizitzaren parkea sortzea (650 etxebizitza jadanik egiten ari dira: etxebizitza publikoak, babes ofizialekoak, alokairukoak...), kaleak oinezkoentzako egokitzea eta aparkalekuak hobetzea.

■ Dagoen industri-lurzorua burutzea (Sigma, Karkizao, Lerun -Txiki...), industri-lurzoru berria (Albitxuri...) eta azpiegiturak (uholdeetarako babes, kolektorea, depuradora...) sortzea. Ingurugiroan inbertsioak egitea, Elgoibarrek garapen jarraitua eta armonikoa izan dezan.

■ 2011ko Elgoibar definitzea, gizarte agenteekin eta herritarrekin batera; biztanleei, industriari, heziketari, base-rirei, gizarte laguntzaileei, ingurugiroari... dagozkien helburuak finkatzea. Helburuak eta epeak ezarri ondoren, guztiok nahi dugun herriaren oinarriak jartzea.

KONTXI LOIOLA:

"Ganaua ezautzen zaban jendia bihar zabelako hasi nintzan saneamendu kanpainetan"

Kontxi Loiola elgoibartarrak 47 urte ditu. Izatez Sagarraga baserrikoa da baina gaur egun San Migelgo Bentan bizi da. Urte ugari daramatza saneamendu kanpainetan laguntzaile lanetan. Martxoan kanpaina bukatuta, lasaiago dabilen ustean unetxo bat lapurtu diogu bere lanaren inguruko gorabeherak kontatzeko.

- Zer dira saneamendu kanpainak?

- Behixeri narruan tuberkulina txertua jartzen jakue,

lanparoiak dauzken edo ez jakitzeko eta gero odola etartzen jakue "brucelosis" gaixua daken jakitzeko, bi gaixotasun honek pertsonari pasau ahal jakoz-eta. Lanparoiak tuberkulosisa ekartzen dau eta "brucelosis" dalakuak kalentura haundixak eta emakume haurdunetan umia gaizki jai-xotzeko arriskua. Ardixeri, berriz, odola etara eta "brucelosis" bakarrik itxen jakue, ze lanparoiak ez ditxue harrapatzen. Oin dala lau edo bost urterarte urtero itxen zitza-kuen, baina gaixotasuna gu-

txitzen jun zan, eta oin behixeri bi urtetik behin itxen jakue eta ardixeri hiru urtian behin.

- Noiztik diharduzu laguntzaile lanetan?

- Behixekin 15 urte daruaz eta ardixekin hamar. Saneamendu kanpainak itxen hasi zianian ez zan obligatorixua eta baserritxarrak ere ez zian gehixegi fiatzen, gaixotasuna urten ezkeru ganaua mataderixara eruan bihar zalako. Orduan, nere aitxa Donostiako *Camara Agrarian* bokala zan eta beste mutrikuar batekin, haura ere bokala, bixak hasi zian. Handik hiru urtera derri-gortu in zebe eta eurak zahartzen hasitxa zaudenez eki-po bat eitxia pentsau zaben, eta etxequak izanik, guk jarraitxu gendun. Ganaua ezautzen zaban jendia nahi zan eta gainera gaztia, fitxak betetzeko erreztasuna zakana.

- Zein da zure eginbeharra kanpainen?

- Behixekin, sekretarixa lana itxen dot, hasieran fitxekin eta oin ordenadore portatilakin. Hiru lagun jutun gera, beterinai-xua eta bi laguntzaile. Beste laguntzaillak ganaua eusten dau eta gainontzeko lana beterinai-xuak itxen dau. Nik datuak hartzen ditxut, baserrixan izena, zenbat ganau daon, gaixotasunik badaken... Ardixekin, berriz, bi lagun jutun gera. Albaitarixak sekretarixo lanak itxen ditxu, eta ni ardixak harrapatzen, eusten eta txapak jar-

tzen ibiltzen naiz.

- Non egiten dituzu saneamendu kanpainak?

- Behixak Plaentxin hasi eta Debaraino itxen ditxut, eta ardixak Leintz-Gatzagatik Mendaroraino. Ardixekin azaruan leheneguetan hasten gara eta behixen garaixa otsaila edo martxua izaten da.

- Lan gogorra al da?

- Behixena gogorra baino gehixao ordu askotakua da. Kortako lanaz gain, ofizinan datu danak ondo ipini bihar izaten ditxut, disketak prepa-rau *Camara Agrariara* bialtzeko... Ardixena nekosuaua da, harrapau in bihar izaten ditxutelako.

- Anekdota ugari izango dituzu.

- Ardixekin hasi nintzian, albaitarixa emakumia zan, baina baserritxarrak ohitxuta zauden laguntzailia gizonetzkoa ikustera. Orduan, bi emakume azaltzen ginanian ez zian fixatzen. Baina, bukatzen gendunian konturatzen zian guk gizonek beste ahal genduala.


- Zertan aberastu zaitu lan honek?

- Oso gustagarri itxen jata baserritxarrekiko harremana. Leku bakoitzian ohitxura desberdinak ditxue. Bestalde, badirudi herri guztiak alkarren onduan daudela baina euskeran oso ezberdinak dia. Oso aberatsa iruditzen jata gauza bakar bat esateko zenbat modu ezberdin dauden ikustia.



Janari transgenikoak

Gaurko kontua dirudi, baina bioteknologia duela urte asko erabiltzen da janariak hobetzeko, edo hala diote behintzat adituek. Laboratorioetan sortutako jakien inguruko polemika mundu osora zabaldu da eta Europako Parlamentua produktu horiei mugak jartzea eztabaidatzen ari da. Bitartean, guk jakin ez arren, jaten ditugun barazki askoren atzean kontu ezkutu ugari dago.



Laborategian genak txertatu ohi dizkiete barazkiei oinarritzko osagarriak aldatzeko.

Janari transgenikoak espezie bereko produktuetatik sortzen dira, baina tartean genetikoki hainbat aldaketa jasaten dituzte. Laborategian bere oinarritzko ezaugarriak aldatuko dizkion gen bat txertatuko diote, honela, produktu berria sortuz. Esaterako, tomate bati gen bat sartuko baliote, tomate hori behar lukeena baino beranduago heltzea lortuko lukete.

Gaur egun, aldaketa genetiko bidez lortzen diren produktuak eta gehien komertzializatzen direnak kotoia, artua, patata, tabakoa eta tomatea dira. Baina, beste hainbat produktu daude ikerketa bidean, eta aurrera begira janari transgeniko asko izango dugu gure artean.

Aldaketa transgenikoak mundua aztoratzen ari dira. Jendeak ez daki horren guztiaren atzean zer dagoen eta askok uste du interes komertziala nagusitu zaiola osasuna zaintzeko beharrari. Horregatik sortu da horrenbesteko eztabaida, batzuk janari transgenikoen alde daude, besteak aldiz erabat aurka.

ALDE:

- ✓ **Produkzio hobea.** Enpresen esanetan, hobekuntza genetikoen bidez produkzioak gora egin dezake. Geneen bidez, uztari eragiten dioten faktoreak baliogabetzeko ezaugarriak txerta dakizkie produktuei. Produkzioa, izurriteek, eguraldiak... erabat baldintza baitezakete.
- ✓ **Herbizida gutxiago.** Herbizidekiko erresistente eginez gero, mota horretako produktu gutxiago erabili beharko direla diote multinazionalen arduradunek. Ingurugiroarentzat ezezik nekazariaren ekonomiarako onuragarria da. Gainera, uzta galtzeko arriskua txikiagoa da.
- ✓ **Gosearen amaiera.** Aldekoen arabera, nekazaritzarako onak ez diren lurretan ere bultzatzen ari dira mota honetako nekazaritza. Teknika berriek posible egingo dute goseturik dagoen jende kopurua erdira jaistea, 800 milioi lagunetik 400 milioira alegia.
- ✓ **Injinerutza aurrerapenerako ezinbestekoa.** Enpresa bioteknologikoen esanetan, botikak darmatzaten produktuak jaki transgenikoen bitartez landa daitezke. Baita energia gutxirekin kimikoak sintetizatzen dituzten mikrobioak ere. Gainera, produktu organikoak bezain seguruak dira.

KONTRA:

- ✗ **Produkzio handiagorik ez.** Ikerketek adierazi dute laborategietako emaitzak ez direla ondoren lursailetan lortzen, tartean beste faktore asko daudelako. Esaterako, Nafarroan egindako esperimenduek erakutsi dute arto transgenikoaren produkzioa ez dela handiagoa.
- ✗ **Kutsadura genetikoa.** Herbizida jakin baten bidez, landareak onartzen duena, alegia, inguruko beste belarrak akabatzen dira. Horrek, herbizida horrekiko erresistentzia duten intsektuak sortzen ditu, eta hauek landareen informazio genetikoa eduki dezakete. Horrela, kutsadura genetikoa azkartu egiten da, eta inork ez daki nola gelditu. Kutsadura jadanik iritsia da animalietara eta gizakiengana ere hel daiteke.
- ✗ **Nekazaritza tradizionalaren aurka.** Landare transgenikoak ingurugiroaren aurka doaz. Horrek nekazaritza biologikoa desagertaraz dezake. Arto transgenikoa saltzen duten enpresak, uztaren zati bat ohizko haziekin landatzeko gomendioa egiten dute, intsektuak babesteko. Baina, nekazarien ustez horrek ez du inolako zentzurik. Bestalde, esne produkzioa nahikoa den arren, behiei ematen zaien jatekoaren bidez, ekoizpena handitzeko produktuak bultzatzen ari dira.

URKIOLA baserria

San Pedro auzoan dago Urkiola baserria. Kotxez abiatu gara bertara, San Pedroko kanpara iritsi baino lehen eskumara hartu eta Aubixa pasatu ostean aldapan gora egin dugu. Berehala iritsiko gara Urkiolara eta bertan topatu ditugu etxeko andrea, Mari Karmen Egidazu eta alaba gazteena, Agurtzane, lanetik etorri berri-tan. Bazkalostean, baserriko kontuetaz berbetan jardun dugu beraiekin.

Etxeko bi alabek eta gizonak tailerrean egiten dute lan eta baserriko lanetan Mari Karmen eta Jose Luis Egidazu, anai-arrebak aritzen dira. “Gehixen bat guk itxen dou hemen lana, eta alabek eta gizonak ahal dabentian laguntzen dabe, zapatueta normalian. Ortuak eta ganauekin itxen dou lana eta piñuak ere botatzen douz”. Mari Karmen ortuan eta belarra batzen ibiltzen da, baina etxeko lanetaz arduratzen da batez ere.

Tailerretik eta baserriko bizimodutik ateratzen dute eguneroko ogia, eta baserrikoa oso lan lotua dela aitortu digute. Oporretara joaten al diren galdetu diegunean zera erantzun digu Mari Karmenek: “Ez, eta nahi ere ez. Baserrixan bizi ezker, hor zihar oporretara jun eta arduria besterik ez da eukitzen. Ganaua dala, ortua dala...”. Oporretan kanpora joatea gustuko ez duten arren, kalerako joera badaukate Urkiolakoe. “Kalera juten gara errekauek-eta itxera. Uda aldirian ere patatia, letxugia eta porruak eruaten douz dendetan saltzeko”. Hala ere, Mari Karmenen ustez kaleak arrisku gehiago dauzka, batez ere umeekin. Gainera, baserri inguruetan auzokoen harteko laguntasuna handia dela esan digute. “Zeozer faltan badozu edo zeozekin ezin badozu, auzora jun eta beti egongo da bateron bat. Guk laguntasuna eman eta auzokuek ere guri berdin ematen digute”.

Arrateko apaiza

Baserriaren historiaz eta bertan bizi izandakoez hitz egiten hasita, Arrateko apaiza bertan jaiotakoa dela jakin dugu, “hemengo aitzitxan tio da Don Pedro, hementxe hazitxako umia”. Garai baten Urkiola baserrian taberna



Auzoko jaien gainbehera

Auzoko jaiak San Pedrotan ospatzen dituzte Urkiola baserrikoek, eta giro ona egoten dela aitortu arren, etxeko alaba gazteena, Agurtzane, ez dago batere itxaropentsu jaiak izango duten jarraipenarekin.

“Auzoko girua eoten da, baina hemengo gaztiak konturau gera, lehen pribilejio bat zana pixkanaka galtzen daola. Gaztiok kalerako joeria dakagu eta zaharrek ezin dabe..., ez dakiu zer pasauko dan. Gu San Pedroko elkartian sartuta gaoz, eta saiatzen gera auzoko gaztiei bultzadia ematen. Baina ikusten dabe danak kalera juaten diala, eta eurek ere koskortzen dianian berdina ingo dabe”.

.....

egon zela ere kontatu digute eta beraiek ezagutu ez arren, aitzitxaren ahotan bertako kontuak entzundakoak dirrela garbi utzi digute: “Gerratian Kalamuan tabernia eon zan, onduan frontoia zabala. Hemen, gero eon zan tabernia, Urkiolan, eta Usatorren ere bai. Heriduak Kalamuatik hona ekartzen zitxuen eta saniatzen zianian San Migeletik ziar eruaten zitxuen”.

Denborarekin aldaketa ugari izan dira, batez ere, tresneriari dagokionez. “Oin makiniakin derrepente dakazu inda lurra. Lehen atxurrakin in bihar izaten zan dana”. Hala ere, garaiak aldatuz doaz eta bertako alabek ez dute baserrian gelditzeko asmorik. Alaba gazteenak esan digunez, “baserrixa bizitzeko ondo dao, lasaitxasun haundixaua daolako, baina gaur egun baserrixik ateratzen danakin ez dao bizitzerik”. Mari Karmenek, ordea, beretzat onena baserria dela adierazi

.....

digu, “dudarik gabe, ez dao ezer hau baino sanuaorik”.

URKIOLA

■ **Auzoa:** San Pedro.

■ **Bizilagunak:**

Jose Luis Egidazu, 49 urte;

Jose Migel Ansola 53 urte;

Mari Karmen Egidazu 48 urte;

Ainhoa Ansola, 25 urte;

Agurtzane Ansola 23 urte.

■ **Lur hedadura:**

25 hektarea.

■ **Esplotazioa:**

27 behi eta 5 txahal.



MADALA - URRUZUNO BAILARA- MADALA

Distantzia: 9km.

Denbora: 45 min.

Zailtasuna: erraza



Eskuman Irizabaleta baserria ikus dezakegu. Baserri honetan orain dela 40 urte eskola omen zegoen.

Irteera honetan Urruzuno bailara eta bertako baserriak ezagutzeko aukera izango dugu.

■ **1** Madalako zubitik irten, eta Azkoitirako bide zaharrean gora 3 kilometro egin ostean, Urruzuno bailarantz joko dugu. Horretarako, bidean bertan aurkituko dugu Urruzuno bailara markatzen duen seinalea.

■ **2** Zementuzko bidean gora eginez, ezkerretara utziko dugu Ertzila baserria, eta aurrera eginez, gaina hartutakoan Urruzuno bailara osoa ikusteko aukera paregabea izango dugu. Aldapan behera eginda Irizabaleta baserrira helduko gara (hasieratik 4 km.ra dago baserria).

■ **3** Irizabaleta baserriaren aurretik pasa ondoren, 200 metrora, zementuzko bidea utzi eta eskubitara dagoen pista hartuko dugu. Pinadian behera egingo dugu hurrengo baserrira iritsi arte, Urruzuno-Etxetxora, alegia.

■ **4** Hemen errepidearekin bat egingo dugu, eta Antxusieta Goikoa eta Behekoa baserrien erditik pasa ostean, aldapan behera, jaitsiera gogor bati egin beharko diogu aurre.

■ **5** Azkenik, Urruzuno auzoan behera eginez, autopistako zubiaren azpitik pasa eta Melitongo zubira iritsiko gara. Itzulia hasitako leku berean bukatu nahi izanez gero, hemendik Madalako zubira jo dezakegu. Buelta hau bizikletaz egiteko ezezik oinezkoentzako ere egokia izan daiteke.



Informazioa:

Alberto Agirreazaldegui

Arrate Juaristi elgoibartarrak 49 urte ditu, eta bizitzako azken 15 urte eta erdian zerbait falta izan zaio alboan, Mikel bere senarra, alegia. Arrateren senarra, Mikel Alberdi, euskal preso politikoa da eta 15 urte pasa ditu kartzeleratuta. Duela egun gutxi, Udal Plenoak eta alkatetzak, Lizarra-Garaziko sinatzaileen laguntzaz Mikelen askatasuna eskatu zuten, kondenaren 3/4 beteta baitauka eta legegaren arabera kalean behar luke luke. Senarra preso daukan emazte baten egoera gogor hori nola bizi duen kontatu digu Arratek.

ARRATE JUARISTI

"Mikelen burua beti dao kartzelatik kanpoko gauzetan pentsatzen"

– Gogoan al duzu Mikel atxilotu zuteneko eguna?

- Noski baietz, bizitza osuan goguan izango det. 1984 urtia zan eta Mikel Udaleko zinegotzixa zan. Egutero bezala lanera jun zan eta polizia azaldu zian gure etxian. Mikelez galde-tu eta bi polizia haura noiz etorriko esan geratu zian. Gerotxuo esan ziaten Mikel atxilotu zabela. Zer egin ez nakixala geratu nintzan eta goiz batian bizitza aldatu jatala konturatu nintzan.

– Urteak hegan pasatzen dira askotan, zure kasuan ere bai?

- Ez, alderantziz, 15 urte hauek oso luze joan dia. Urriak azkar pasatzen diala ematen dau, baina denboraren nozia nahiko arrarua da, hori danori pasatzen jakula uste dot. Egunak oso luziak egin jataz, jaikitzen naizen unetik dakat goguan albuana falta jatzuna. Kalian ezagun bat edo Mikelen kuadrilakuak ikustiakin batera edo detaile txikixenekin etortzen jata Mikelen irudixa burura eta horrek denboria gelditxu in danan

sentsaziua ematen dia.

– Sarri joaten al zara Mikel bisitatzerara?

- Nun dauan arabera izaten da hori. 7 kartzela ezautu ditxu jadanik eta batzuek zoritxarrez, urrunegi dao sarritxan juteko. Oin Villabonan (Asturiasen) dao eta 15 egunian behin juten naiz bisitatzerara. Kartzelaz noiz aldatuko duten ere, aldatu ondoren esaten dizue, diotenez segurtasun neurrixegatik da. Bisitetara beste preso batzuren emazte edo familiakoekin juten saiatzen naiz, baina askotan ezinezkoa da. Kartzelako araudiak xelebriak dia, kartzela batek 10 modulo euki leikez, presuak modulo desberdinetan sartzen ditxue eta modulo bakoitzak bisitetarako ordutegi bat dauka. Neurri horiekin, presoak elkar ez ikustea bilatzen dabe eta bide batez presoen senideok ezin gara elkarrekin bisitetara joan.

– Nola dago Mikel? Asko aldatu al da?

- Moralki oso ondo dao. Askotan harritxu itxen gaitxu kar-

tzelan pasau bihar diazenak eta gero burua horren argi daukala ikustiak. Urtetzen danian ingo daban lehenengo gauzia balkoian jarri eta Karakatera begira geratzia dala esaten dau. Egoera Fisikua, berriz, urriak aurrera doiaz eta nabari da. Gartzeletako argitasunak eta koloreek adibidez, ikusmenean eragina dute, txurixauak ditxu begiak.

– Egia al da presoak ohitu egiten dela kartzelara?

- Ez, inoiz ere ez. Hori ez da egixa. Mikelen burua beti dao kartzelatik kanpoko gauzetan pentsatzen. Noizian behin herriko kontuei errebasua itxen diegu, jendiaz ere galdetzen dau eta baitxa Jai Alai taberniak betiko tokixan jarraitzen al daban ere, sarritxan juten baitzan.

– Eta zuk nola bizi duzu senarraren espetxealdia?

- Oso gogorra da. Ez naiz ohitzen eta bisitatzerara jun baino 5 edo 6 egun lehenao oso nerbiosa jartzen naiz. Txarrena, bisitak amaitzian izaten da, ni kanpora nua, baina bera barruan geratzen da.

– Zer egin behar da bikote baten arteko maitasuna baldintza horietan mantentzeko?

- Oso zaila da. Ahal dugun komunikazio gehixen mantentzia da gakua. Baina oso denbora gutxi dao edozertan gehiegi sakontzeko. Astero 40 minutu dao kristal bat tartian dakagula hitz egiteko eta hilean behin bisita intimoago baterako ordu eta erdi lagatzen digute. Denborarekin oso zorrotzak izaten dia.

– Noizko espero duzu Mikel zuen etxeko sukaldean?

- Biharko nahi nuke, baina argi dakat piska bat itxaron beharko dudala. Itxaropenik ez dot inoiz galdu, baina oso zaila izango da agintean daudenek iritiz aldatzea. Ziur dakidan bakarra da 4 urte eta erdi barru bukatuko duela kondena.

BESTEAK ESANA

"Bizitzaren aurpegi beltzari aurre egiten dakien horietakoa da. Adiskide ezin hobea eta langile fina."

MARI ANGELES EXPOSITO, laguna.



eskola kirola



B E N J A M I N A K

mUtilak

A maitu dira Eskolarteko Kirolak, eta saskibaloian, eskubaloian eta futbolean garaile izan diren taldeek joan den zapatu eguerdian jaso zituzten sariak Jose Mari Oruesagasti alkateordearen eskutik. Argazki hauetan kirol bakoitzeko txapeldunak agertzen dira, alebin eta infantil mailetan. Benjamin mailako partehartzaile gaztetxoak denak batera agertzen dira, maila hauetan ez baitago irabazle edo galtzailerik. Bestalde, lau taldek ezin izan zuten sari banaketan parte hartu Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak jokatzen ari zirelako.



B E N J A M I N A K

n e S K A K



A L E B I N A K

Eskubaloia · Ikastola C

Eskubaloia · Pilar B



A L E B I N A K

Futbola · Mendaro A



A L E B I N A K

A L E B I N A K



Saskibaloia · Pilar A

Saskibaloia · Ikastola C



A L E B I N A K



Eskubaloia · Ikastola D

Infantilak



Saskibaloia · Pilar A

Infantilak



Aipamen berezia

Oskar Horrillo
Herri Eskola B

Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak jokatzeko ari zirela-eta honako hauek dira sari banaketan parte hartzerik izan ez zuten beste talde txapeldunak. Hori da argazkietan taldeak ez azaltzearen arrazoia.

IRABAZLEAK:

- Institutua** · Saskibaloian txapeldun (Infantil mutilak)
- Pilar B** · Futbolean txapeldun (Alebin neskak)
- Ikastola** · Futbolean txapeldun (Infantil mutilak)
- Ikastola E** · Futbolean txapeldun (Infantil neskek)

KENSINGTONek AURKEZTEN DU:

IKASFUN®

GUZTIZ BERRIA

UZTAILEKO IKASTAROAK

ADINA	MAILA
6-8	Hasi berriak
9-11	Oinarrizkoa
12-13	
14-16	Ertaina

Ordutegia: 9:30etatik 13:30etara

INGELESA - FRANTSESA* - ALEMANA*

- Denbora libreko ekintzak
- Ingelesa egoera errealetan
- Lehiaketak eta txapelketak
- Kirola
- Argazki rally-ak
- Ekintza artistiko/sortzaileak

* Eskaeraren arabera

Deitu eta hitz egingo dugu!

KENSINGTON

P. Muguruza etorbidea, 8
Tel. 943 74 02 36/ 74 35 12
E-posta:
kensington@redestb.es

● **Ikastolako eskubaloi taldeak Eskolarteko Euskadiko Txapelketako finala jokatuko du**

Ikastolako infantil mailako mutilek, Euskadiko eskolarteko eskubaloi txapelketako finala jokatuko dute, datorren zapatuan, hilak 5. Elgoibartarrak Gipuzkoako txapelkunak dira eta Arabako eta Bizkaiko ordezkariei aurka neurtu zituzten indarrak pasa den asteburuan Gasteizen. Arabarren aurka 22 eta 20 irabazi zuten eta Santutxuko bizkaitarren aurka 26 eta 25 izan zen azken emaitza. Datorren larunbatean Nafarren aurka irabaziz gero, Cadizen jokatuko den Espainiako txapelketara joateko txartela eskuratuko dute.

● **6 elgoibartarrek hartuko dute parte Bailarako Tenis Txapelketan**

Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek, Bailarako 1. Udaberriko Tenis Txapelketa antolatuko dute. Txapelketako partidu guztiak Unben eta IMHn jokatuko dira, larunbatean eta igandeetan, ekainaren 12tik uztailaren 25era artean. Guztira, 15 tenislarik izena eman dute eta 6 elgoibartarrak dira. Iazko txapelkunak, Ander Oñederrak ere parte hartuko du.

● **47 talde arituko dira bihar, hilak 5, hasiko den Futbol 7 Txapelketan**

Ekainaren 5etik uztailaren 25era bitartean jokatuko da Elgoibarko eta Eibarko Udal kirol Patronatuek antolatutako Futbol 7 txapelketa. Partiduak, Mintxetan eta Eibarko Unbeko futbol zelaietan jokatuko dira. Guztira, 47 taldek parte hartuko dute eta 8 taldetan banatuko dira. Larunbatean goizeko 9:00etatik aurrera 8 partidu jokatuko dira Mintxetan. Domeketan, berriz, 10:00etan hasita 4 partidu jokatuko dira. Finala uztailaren 25ean jokatuko da Mintxetan.

Zur Ta Lur areto futboleko taldeak Gipuzkoako Liga Autonomikoa irabazi du

Lehen mailako taldea, berriz, mailaz jaitsi da

Zur Ta Lur areto futboleko taldeak ligako azken partidua jokatuzuen pasa den larunbatean, hilak 29, Lasarteko Bar Buenetxea taldearen aurka. Azken emaitza 2 eta 5 izan zen elgoibartarren alde, eta garaipen honi esker, Gipuzkoako Liga Autonomiko Txapelketa irabazi dute. Azken sailkapenean puntu bakar baten alde atera diote bigarren sailkatuari, Cabo Rojo taldeari, alegia. Elgoibartarrak azken partidua irabaztera behartuta zeuden, Cabo Rojo taldeak ostiralean jokatuzuen partidua irabazi egin baitzuten. Zur Ta Lur taldekoak lehen bueltako partidu erdiak jokatuz zituztenetik egon dira sailkapeneko lehen postuan eta Ligako azken txanpa oso orekatua eta emozioz bete izan da. Azken sei partiduetan puntu bakarreko alde egon da lehenaren eta bigarrenaren artean. Liga irabazi arren, Jose Ramon Uriarte taldeko arduradunak esan digunez, "mailaz igo arren oso zaila izango da datorren denboraldian 1. Liga Nazionalean jokatzea. Bidaia asko egin be-



Zur Ta Lur areto futboleko taldeak liga irabazteko azken partidura arte itxaron behar izan zuten.

har dira: Santanderrera, Nafarroara, Errioxara etab. Bidaia horiek egiteko diru asko behar da. Aurtengo aurrekontua milioi bat pasatxokoa izan da eta lanak izan ditugu diru hori biltzeko". Datorren domekan, hilak 6 Gasteizen jokatuko dute Euskadiko Txapelketa eta irabaziz gero, Talavera de la Reinan (Toledon) jokatuko den Espainiako Txapelketarako sailkatuko dira.

Bestalde, 1. mailako Zur Ta Lur taldea mailaz jaitsi da. Hauek ez dute talde nagusikoen adinako zortetik izan eta puntu bakar batengatik galdu dute 1. mailan jarraitzeko aukera.

Kanpotarrak nagusi ehiza txakurren 'Trinitate Saria'n

Ehiza txakurren "Trinitate Saria" jokatuzuen pasa den zapatuan, hilak 29, Albitxuriko zelaietan. Ingeles arrazako txakurren atalean, Santiago Bernardo Zumarragakoa izan zen irabazlea, 'Java' setter ingeles arrazako txakurrekin. Bigarren postuan, Javier Oñederra aretxabaletarraren pointer arrazako 'Iris' txakurra sailkatu zen. Kontinenteko arrazen txapelketari dagokionez, Julio Rojas errenterriarraren 'Belta' txakurra izan zen irabazlea. Roberto Guenaga, Espainiako Setter arrazako txakurren taldeko lehendakariak Setter onenari eman zion sari berezia Juan



Argazkian, Juan Francisco de la Fuente, herriko txakur onenaren saria jasotzen.

Jose Alearen "Linbo de Playabouri" txakurarentzat izan zen. Herriko txakur onenari eman zitaion saria, Juan Francisco de la Fuentek irabazi zuen.

Txuskoren omenezko 2. Enduro Txapelketa jokatuko da domekan, hilak 6

70 motorzale inguru izango dira eta 7 herritarrek hartuko dute parte

Memorial Txusko izenpean, Txusko Moto Klubak Elgoibar herriko 2. Enduro Txapelketa antolatuko da domekarako, hilak 6. Antolatzaileek 70 partehartzaile inguru izango direla adierazi digute eta horietatik 7 herritarrek izango dira. Albitxuriko zelaian prestatutako ibilbidean jokatuko da proba. Motorzaleek, 45 km.ko mendi buelta bi aldiz egin beharko dute, eta buelta bakoitza amaitzean, Albitxuriko zirkuitoari buelta bat eman beharko diote. Lasterketa 9:30ean hasiko da eta Moto Klubekoek, 14:30ak alderako sari banaketarekin hasiko dire-



Goizeko 9:30ean emango zaio hasiera 2. Enduro Txapelketari Albitxuriko zelaian.

la pentsatzen dute. Txapelketak 4 kategoria izango ditu, juniorrak, seniorrak, beteranoak eta hasiberrientzako sari berezia izango da.

● IMH eskubaloia taldeak azken partidua irabazi edo berdindu egin behar du Gipuzkoako kopa eskuratzeko

IMH Elgoibar eskubaloia taldeak Gipuzkoako Kopako azken partidua jokatuko du datorren larunbatean, hilak 5, arratsaldeko 17:00etan, Kiroldegian. *Sahatsa Madelesa* taldearen aurka arituko dira eta partidua irabaziz gero, Kopako txapelketa geratuko liriteke bigarren urtez jarraian. Elgoibartarrek 11 puntu dituzte eta bigarrenak dira Kopako sailkapenean, hain zuzen larunbatean aurkari izango duten *Sahatsa* taldekoak dira hirugarrenak, baina elgoibartarrek adina puntu dituzte. *Donibane* taldekoak dira lehenak 12 punturekin, baina jadanik partidua guztiak jokatu dituztenez, larunbateko partiduan gertatzen denaren zain egon beharko dute. Partidua berdinketarekin amaituz gero elgoibartarrek dute "gol average" onena eta eurek izango liriteke Gipuzkoako Kopako txapelketa.

Egoitz Mora eta Ana Estevez judoek urrezko dominak irabazi dituzte

Ibai Klubeko Egoitz Mora elgoibartarrek V. Errenteria Hiria nazioarteko judo txapelketa irabazi zuen maiatzaren 22an, 90 kiloz azpiko kategorian. Finalean Samuel Mateo Portugalgo txapelketa irabazi zion. Errenteriako txapelketa, Euskadiko garrantzitsuenetarikoa da eta oso maila altuko kirolariak joaten dira.

Bestalde, Ana Estevez Ibai Klubeko judoka gazteak urrezko domina irabazi zuen Santandergo Nazioarteko Judo Txapelketan. Guztira, 5 elgoibartarrek parte hartu zuten, eta Anaren urrezko dominaz gain, beste lau judoek brontzezko domina bana eskuratu zuten. Judoka gaztetxo hauek ere etorkizun oparoa dutela erakutsi zuten.



Santanderrera joandako bost judoek domina bana irabazi zuten. Maria Estevez behean ezkerrean.

EMAITZAK

Areto futbola

Zur Ta Lur 5 - Oive 7 (1. maila)

Esku pilota

LAGUNAK PILOTA TXAPELKETA

I. Rodriguez 18 - A. Gonzalez 15 (Aleb.)
E. Ulazia 18 - I. Azpiazu 0 (Inf.)
H. Iriondo 18 - J. Larrañaga 5 (Inf.)
E. Zulaika 18 - A. Larrea 6 (Aleb.)

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Amezketak-Elgoibar

Agirre/Murua 18 - Bernedo/Loiola 4 (Kad.)
Lertxun./Altuna 22 - J. Arrillaga/Arril. 13 (Jub.)
Saralegi/Garm. 22 - Ansola/Lazarobazter 16 (Nag.)

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 98/99 JOKALARIA PUNTUAK

1- G. Lazarobaster	40
2- Gurrutxaga	39
3- Ibon Muguruza	38
4- Aitor Trebiño	32
5- Madina	31
6- Díaz	30
7- Eneko	28
8- Txasio	26
9- Iker Leonardo	24
10- Caro	20
11- Igor	19
12- Beitia	18
13- Loren	16
14- Elkoro	15
15- G. Leonardo	10
16- Joseba Igartua	5
17- Portu	1

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 5

9:00 Bar Las Torres - Costo de Doñana
9:00 Kaskima Brewers - Laranja Mek.
10:00 Bar Gure Toki - Inkiston
10:00 La Tarantela - Bar Margon
11:00 Antzarrak - A.P.T.C.P.K. Dos
11:00 Kadar C.F. - Grassoppers
12:00 Faustino VII - Zergatik Ez
12:00 El que sobra - Tiroriro taberna
Igandea, 6
10:00 Elur F.S. - Olaso F.C.
10:00 Zordunak - Los txatos
11:00 Elgoibar F.S. - Malas Hierbas
11:00 F.C. los Cillones - No nos patrocinan

Futbotoa, Kiroldegian

Ostirala, 4

Kopako finala

22:00 Lojantzi - P.S.K.


Igandea, 6

11:00 Lojantzi - Spartak de Braga
12:00 Los Peñascos - P.S.K.

Eskubaloia, Kiroldegian

Eskolarteko Fase Probintziala

11:00 Ikastola - Zarautz (Aleb. mut.)
12:00 Ikastola - Oñati (Aleb. nes.)
Larunbata, 5
17:00 IMH Elgoibar - Sahatsa Mad. (Sen.)



Errealismo zikina

Raymond Carver estatubatuarra "dirty realism" edo "errealismo zikina" izeneko literatur korrontearen ordezkarri nagusia du. Korronte horren ezaugarria, errealtatea, egunerokotasuna, ikuspegi berezi batetik islatzea da. "katedrala" liburua, joera horretako egilearen lanetako bat da.

Berez, "Katedrala" ipuin edo errelato liburua da. Narrazio guztietan Estatu Batuetako eguneroko bizitzako gertaerak dira ardatza. Istorio guztietan egoera arrunt bat aurkezten da, ondoren badirudi ez dela ezer gertatzen, baina apurka-apurka garatu egiten da eta irakurleari zirrara berezi bat eragiten dio. Horretan eragina du idazleak erabiltzen duen teknikak; esaldi laburrak erabiliz idazten du Carverrek, baina sinpleak izanagatik, askotan ez zaie sarkontasunik falta.


Amaitu aurretik gogoratu behar da Robert Altman zinegilea bere "Short cuts" edo "Vidas cruzadas" filmea egiteko Carverren lanetan oinarritu zela eta tartean "Katedrala" liburu eder honetan ere; hain zuzen "Gauza xumea baina ona" istorioa jaso zuen hemendik.

Jon Eugi

"Kalitatezko pelikulak ekarri ditugu"

Publikoaren erantzuna nahiko ona izan da Ongarri Zine Klubeko esanetan

Ongarri Zine Klubak 98-99 denboraldia, Bill Condon-en "Dioses y monstruos" pelikularekin amaitu zuen. Azken 8 hilabete hauetan 28 pelikula eskaini dituzte, 39 emanalditan banatuta Zine Klubeko iritziz, "gai eta ikuspuntu diferenteak jorratzen dituzten pelikulak izan dira eta herrietara normalean iristen ez den 'beste zinea' ikusteko aukera eskaini diego elgoibartarrei".



Ongarrikoek emanaldien balorazio orokorra egiterakoan honakoa adierazi digute: "jendearen erantzuna nahiko ona izan da eta publikoaren asistentzia eskertu nahi dugu. Halaber, gure lanak Elgoibarko Udaleko Kultura sailaren dirulaguntza izan du hirugarren urtez jarraian eta Zine Klubeko emanaldiak finkatzen asko lagundu digute". Pelikulen kalitateari buruz, "denboraldi honetan eskaintza bikaina egon da eta uste dugu pelikula garrantzitsu asko izan direla ikusgai: *Tango, Character, Marius eta Jeannete, Affliction, Gato negro gato blanco, Hombres Armados, El dulce porvenir, Cube, Pleasantville*, eta beste asko".

Filmeen proiektio soilak ezezik, herriko hainbat elkarterekin elkarlanean saioak antolatu dituzte: *Haizea Emakume Taldearekin* Zinea eta Emakumea zikloa, Emakunderen laguntzarekin. Pelikulak aurkezteko emakumeen mugimenduko adituak izan genituen Elgoibarren. *Haritz Dantzari Taldearekin*, euren 25. urteurrenean eta *Urruzumo Literatur Taldearekin* ere literaturarekin zerikusia zuen zine emanaldia antolatu zuten. Pertsonaia ezagunak aurkeztutako estilo askotako zine emanaldiak ere izan

dira. *El Diario Vasco* egunkariko Begoña del Teso eta Ricardo Aldarondo eta *Egunkariako* Iñaki Lazkano zine-kritikoez adibidez, zenbait filme aurkeztu dituzte. Zine Klubekoek esan digutenez, "azken urteotako bidetari jarraituz, euskal laburmetrajeak aurkezten ere saiatu gara, Tinieblas Gonzalez-en *Por un infante difunto* eta Iñaki Elizalderen *Patesnak* filme laburrak eskainiz. Emanaldietan Tinieblas Gonzalez zuzendaria eta Patxi Bisquert aktorea izan genituen gure artean". Aintzinako euskal pelikulak ere eman dituzte eta aurkezpena Peio Mendizabal, Euskadiko Filmategiko zuzendariak egin zuen. Bestalde, *Gurean Bai* proiektuari, euskararen aldeko lanean eskaintako laguntzarenegatik eta herriko komunikabideei ere eskerrak eman nahi dizkiegu".

Alboka musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 4, Herriko Antzokian

Alboka musika taldeak folk musika Aikusizuna eskainiko du gaur, hilak 4, Herriko Antzokian. *Alboka* taldea 1994an sortu zen, oso ezagunak diren hiru musikari euskaldun eta beste irlandar bat batu zirenean. Txomin Artolak, Josean Martin Zarkok, Josean Goikoetxeak eta Alan Griffinek norbere proiektuak laga eta talde hau eratzea erabaki zuten, era instrumentalean eta akustikoan musika tradizionala biltzeko eta interpretatzeko. Kitarra, mandolina, bouzoukia, ttuntuna, akordeoia, gaita, txirula eta antzerako instrumentuen soinuak, Euskal kantutegi

oparotik hartutako melodiekin eta dantzeekin batu zituzten lehen diskoan. Kale-ratu duten bigarren lana, "Bi beso lur" izan da, eta lan honetan lankidetzak aipagarriak ezezik, estiloa eta musika tresnen tratamendua dira nagusi. Atzerrian izan duen proiektio handiari esker *Albokak* nazioarteko folk jaialdirik garrantzitsuenetan jo du; Dranouter (Belgika), Folkest (Italia), Forde (Norvegia), Conciertos de Radio3-TVE2... Saioa Udalaren Musika Fundazioak antolatu du, Haritz Euskal Dantzari Taldearen laguntzarekin, gaueko 22:30ean hasiko da.

DIXIELAND JAZZ BAND

Jazz eta blues gaztea Elgoibarren



Astean behin elkartzen dira Kultur Etxeko sotoan Dixieland Jazz Band musika talde berriko gazteak.. Santurtzin jo zuten estreinakoz, musika eskolen topaketan eta ekainaren 11an, Kultur Errotaren emanaldian izango ditugu Dixieland Band taldekoak, blues eta jazz doinuak eskainiz. Gu taldeko Elur Arrietarekin izan gara banda gazte honen berri jakiteko.



ZEINEK OSATZEN DUZUE TALDEA?

Patricia Villarino (klarinetea), Unai Alonso (saxofoia), Aitor Olasolo eta J. Manuel Nova (tronpetak), Iban Ginea eta David Garrido (tronboiak), Maria Prozco eta Silvia Vazquez (pianoak), Elur Arrieta eta Ion Zaldia (bateria), Iker Osoro (kitarra) eta Alberto Iriondo (zuzendaria). Hamabi laguneko taldea gera eta jendiak asko gerala pentsau arren, ezaugarri hauetako talde batentzat ez dot uste gehixegi danik. Doinu onak ateratzeko biharrezkua da instrumento kopuru hau.

NOLA SORTU ZEN TALDEA?

Alberto Iriondok, Musikeskolako irakasliak komentau zigun batzuri ia prest egongo ginan jazz eta blues musika joko zaban talde bat osatzeko. Guk baietz esan genion eta instrumento desberdinak jotzen ditxugun jendiakin sortu gendun taldea. Hasieran, taldekoak ez ginan elkar ezautzen baina piskanaka horretarako aukeria euki dogu. Alberto hasi zan idea hau aurrera eruatan eta oin berak itxen ditxu zuzendari lanak.

NOIZ ENTSAIATZEN DUZUE?

Aktuaziorik ez dakagunian astian behin elkartzen gera, normalian ostegunetan. Baina nunbaitxen jo bihar baldin badogu astian beste ensaioren bat eukitzen dogu. Beti Kultur Etxeko sotuan elkartzen gera.

DIXIELAND JAZZ BAND DA TALDEAREN IZENA. ZER DELA-ETA?

Hemen orkestak dauden bezala, Ameriketako musika mota hau jotzen daben talderi *Dixieland Band* deitzen zaie. Guk hortik izena hartu eta guriari jarri diogu.

ORAIN GUTXI IZAN DUZUE DEBUTA, EZTA?


Maiatzan 15ian Santurtzin jo gendun, *Musikaldi* izeneko musika eskolen topaketa bat izan zen eta gonbidatu gintuztenez jun in ginan. Gero, juan zan ostegunian Herriko Antzokian Musikeskolako jaialdixan gure piezak jo genitxun, eta datorren ostiralian, ekainak 11, Kultur Errotako emanaldixan ere ari tuko gera. 8 kantu prestau ditxugu emanaldirako. Pieza bakoitzian, normalian danok batera hasten gera jotzen eta kantua aurrera duan heinian instrumento bakoitzak bere solua itxen du.

ZEIN MOTAKO MUSIKA JOTZEN DUZUE?

Blues eta jazz musika jotzen ditxugu. Lehenengua nahiko motela eta jazz, berriz, swing erara jotzen dogu, azken hau bizixaua.

TALDE SORTU BERRIA DA. AURRERA BÉGIRA ZEIN ASMÓ DAUZKAZUE?

Nik uste dot aurrera jarraitxuko dogula. Aktuaziak itxeko eta hemendik kanpora jotzeko posibilidadiak ematen badizkigute aurrera ingo dogu. Bestela, aktuaziak itxeko aukerarik ez badakagu ere, ensaiatzen segitzeko motibaziorik ez jaku falta.



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak . . . 943 461111
 Txanda hartzeko . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . 943 032800
 Odol Emaileak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
 PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10
 Taxi geltokia . . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . 943 742158
 Mendaroko Udala . . 943 756100
 Ongizate zerbitzua . . 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa . . . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa . . 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola . . . 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . 943 740296
 Zaharren Biltokia . . 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola . . . 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre . . . 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea . . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco . . . 943 74 40 73
 El Correo Español . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia . . 943 74 34 74

4 ostirala

18:30 ODOLATERALDIA
 Pedro Migel Urruzuno 8an

19:00 ARKU JAURTIKETA IKASTAROA
 Antolatzailea:
 Udal Kirol Patronatua
 Mintxetan

22:00 KONTZERTUA
RDT Punk talde errioxarra
 Gaztetxean
 Sarrera doan

22:30 ALBOKA MUSIKA TALDEA
 Antolatzailea: Musika eta Dantza fundazioa
 Herriko Antzokian

5 larunbata

14:30 BAZKARIA ETA DANTZALDIA GELATXOREKIN
 Antolatzailea:
 HAIZEA Emakume Taldea
 Herri Gain tabernan

12:00 ZAZPIKIREN BILERA
 Ganbaran

12:00 TXALAPARTA IKASTAROA
 Gaztetxean

18:00 URRUZUNO BAILARAKO JAIK
 Urruzuno bailaran

19:30-22:15 ZINEA
 "La novia de Chucky"

6 igandea

9:00 FINALISTA EGUNA
 Antolatzailea: Morkaiko San Pedron.

9:30 ENDURO TXAPELKETA
 Antolatzailea:
 Txusko Moto Klub
 Albitxurin

9:45 ELGOIBARTIK ARANTZAZURA ERROMESALDIA
 Irteera: Sigmako zubitik
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Parrokia

18:30 GELATXO
 Plaza Handian

19:30-22:15 ZINEA
 "La novia de Chucky"

7 astelehena

22:15 ZINEA
 "La novia de Chucky"

8 asteartea

19:00 EGURARTE TAILERREKOEN ERAKUSKETA
 Kultur Etxean
 Ekainaren 19ra arte

9 asteazkena

8:30 JUBILATUEN BILTOKIKO TXANGOIA NAFARROARA
 Irteera Plaza Haunditik
 Antolatzailea:
 Jubilatuen Biltokia

10 osteguna

15:30 IKUSENTZUNEZKOA
 Izenburua: "Antton eta Gaizka, bide berria Patagoniako Paine Dorreetan".
 Antolatzailea:
 DEBABA euskaltegia
 Kultur Etxean

20:00 ANTZERKIA
 "Musika jaialdia"
 Elgoibarko B.H.I.ko ikasleak.
 Herriko Antzokian

11 ostirala

22:30 KULTUR ERROTA
Mikel Urdangarin abeslaria eta *Dixieland Band* musika taldea
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra
 Kultur Etxeko sotoan

ZINEA



Zuzendaria: Ronnie Yu.
Antzezleak: Jennifer Tilly, Katherine Heigl, Nick Stabile.

La novia de chucky

Chucky jostailu beldurgarriari buruz egiten den 4. pelikulan Tiffany bere neska laguna da protagonista. Chucky jostailu bat da, baina poliziak tiroz hildako asarino sikopata baten izpirituak gidatzen ditu bere ekintzak. Jostailu baten itxura izan arren gizakia zenean egiten zituen maltzurkeriekin eta hilketekin jarraituko du. Zeregin horretan Tiffany bere neskalaguna zenak lagunduko dio.

● Finalista Eguna San Pedron igandean, ekainak 6

Morkaiko Mendizale Elkar-teak urteroko ohiturari jarraituz, Finalista Eguna antolatu du. San Pedron izango da igandean, hilak 6. Goizeko 9:00etan Txistularien Udal Bandak eskainiko duen Goiz Eresiarekin emango zaio hasiera jaiari. Goizeko 9:30ean mendi irteera egingo da nahi duen guztiarentzat eta 10:30 meza izango da San Pedroko basilizan. Eguerdiko 12:30ean 1998an igotako mendiei dagokien domina banaketa egingo da. Bost ataletan sailkatuta, 55 elgoibartarrei emango zaie domina bana. Domina banaketaren ostean, bazkaria izango da. Egun osoan zehar Haritz Dantzari Taldeak eta Mautixak giroa alaituko dute eta gerturatzen diren haur guztiek, Zuhaitz Aisialdi Taldeak prestatutako jolasekin dibertitzeko aukera izango dute.

● Urruzuno bailarako jaiak zapatuan, hilak 5 hasiko dira

Orain dela 3 urte hasitako ohiturari jarraituz, Urruzuno bailarako bizilagunek jaiak antolatu dituzte. Auzoari bizitasun piska bat eman eta herrian auzoa ezagutarazteko asmoarekin, honako hauek dira antolatu dituzten ekintza nagusiak: Arratsaldeko 18:00etan txaploak eta jaien hasiera. Ondoren, auzoko lokalean, meza. 19:00etan trikitilariak, ordu berean edari eta pintxoak banatuko dira. 19:30ean haur jolasak. Azkenik arratsaldeko 20:00ak aldera herri kirolak.

● Dixieland Band talde berriaren eta Mikel Urdangarin abeslariaren emanaldiak Kultur Errotan

Datorren ostiralean, hilak 11, Elgoibarko Izarrak antolatu duen Kultur Errotaren 9. emanaldian, *Dixieland Band* talde berriaren jendaurreko estreinako emanaldia izango da Kultur Etxeko sotoan. 11 elgoibartar gaztek osatzen dute jazz eta bluesa lantzen dituen talde instrumentala da, eta emanaldi honetarako 8 kantu prestatu dituzte. Bestalde, Mikel Urdangarin Zornotzako abeslari ezagunak, "badira hiru aste" bere azken diskoko kantuak eskainiko ditu. Kultur Errotaren saioa 22:30ean hasiko da.

● San Bartolome jaietarako ideak emateko deialdia zabalik dago

Kultura sailetik aditzera eman digutenez, hasi dira San Bartolome jaietako egitaraua prestatzen, hori dela-eta, ideak, sugerentziak edo proposamenak Kultur Etxean edo 943 74 21 58 telefonora deituz egin daitezke. Proposamenak ekainaren 12ra arte jasoko dira, astelehentik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara.

● Komite Internazionalisten Udarako brigadetan izena emateko epea zabalik

Komite Internazionalistak (KI) antolatu dituen udarako brigadetan izena emateko epea zabalik dago. Aurten, Guatemala, Kuba, Nikaragua eta Mexikon egingo dute lan brigadistek. Interesaturik dagoenak telefono honetara dei dezake (943 34 04 04), ostegunetan arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

● Txalaparta ikastaroa Gaztetxean

Datorren ostegunean, hilak 10, txalaparta ikastaroari ekingo zaio Gaztetxean. Ikastaro hau, Etsak Etsi taldeko Dabid Otaegik emango du. Parte hartu nahi duenak, Gaztetxean eman dezake izena, edo bestela, zapatuan, hilak 5, Gaztetxean, bertan egingo den bilerara azal daiteke eguerdiko 12:00etan. Ordutegiak zein taldeak erabakitzeko daude, baina ikasle kopurua mugatua denez (12 lagun) oso garrantzitsua da parte hartu nahi dutenek bilerara azaltzea, xehetasun guztiak erabakitzeko. Ikastaroak 1000 pta balioko du eta ikastaroak 5 aste iraungo ditu. Aukera paregabea, beraz, txalapartaren munduan sartzeko.

● Arko tiraketa ikastaroa antolatu du Udalaren Kirol Patronatuak

Geziak arkuarekin jaurtitzeko ikastaroa antolatu du Udal Kirol Patronatuak. Ekainaren 14an hasi eta ostiraleroko 19:00etatik 21:00etara izango dira klaseak Mintxetan. Ikastaroaren prezioa 5.000 pta.koa da bazkideentzat, eta 5.500 pta.koa bazkide ez direnentzat. Izena kiroldegian eman daiteke (943 74 44 15).

● Patagoniako mendiei buruzko ikusentzuzkoa ostegunean, hilak 10

"Antton eta Gaizka, bide berria Patagoniako Paine dorreetan" ikusentzuzkoa izango da ikusgai datorren ostegunean, hilak 13, Kultur Etxeko hitzaldigelan. DEBABA euskaltegiak Kutxaren laguntzaz antolatutako saioa da eta ikusentzuzkoaren ostean mahaingurua egingo dute. Sei mendizale euskaldunek Paine dorreetan (Txileko Patagonian) ireki zuten bide berriari buruz hitzegiten du ikusentzuzkoak. 1998ko otsailean ireki zuten bide berria eta Antton Alonsok eta Gaizka Razkinek bizia galdu zuten ahaleginean. "Antton eta Gaizka" izeneko bide berria, mendigoizale hauen oroimenez jarritakoa da. Saioa arratsaldeko 15:30ean hasiko da.

T X A N D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
5	Yudego	Yudego
6	Yudego	Yudego
7	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
8	Escala	Escala
9	Bidasolo	Bidasolo
10	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
11	Anduaga	Anduaga

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Herriko enparantza, 4 Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

6 igandea Fotero

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Elgoibarren senar-emazte edadetuazaintzeko emakume bat behar da. ☎ 943 29 05 12
- ◆ Neska gaztea behar da ekainaren amaieratik irailaren 15era arte Zarautzen 2 ume zaintzeko. Interna eta astean egun bat libre. ☎ 943 74 15 20 (Arantxa)
- ◆ 25 eta 40 urte arteko kamarera behar da jatetxe batean lan egiteko. Esperientziarekin. Jaika Jatetxea. Beharrezkoa abuztuan lan egitea. ☎ 943 74 03 89
- ◆ Pertsona behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. ☎ 943 74 35 31
- ◆ Kamareroa behar da udan Debaiko taberna batean lan egiteko. ☎ 943 19 23 77
- ◆ Asteburuetan dendan lan egiteko neska behar da. Interesatuak dei ezaue lehenbailehen. ☎ 943 74 27 58

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Emakumea eskaintzen da gaixoak edo umeak egun osoz zaintzeko. Esperientzia daukat. ☎ 943 17 47 70
- ◆ Neska eskaintzen da tabernak, lokalak eta dendak goizez garbitzeko. ☎ 943 17 29 20.
- ◆ Edadetuak zaintzeko esperientziadun emakumea eskaintzen da. ☎ 943 74 25 39 (Maria Luisa)
- ◆ Umeak edo edadetuak zaintzeko emakumea eskaintzen da. ☎ 943 75 51 93 (Rosa)
- ◆ Nire burua eskaintzen dut bulegoak garbitzeko edo edadetuak zaintzeko. ☎ 943 74 06 85
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko, edo umeak zaintzeko, orduka. ☎ 943 58 40 31
- ◆ Klinika laguntzaile euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Esperientzia eta informea ditut. ☎ 943 74 04 86
- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauz. ☎ 943 74 27 78

Partikularrak

- ◆ Uztailean psikometriko klase partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. ☎ 943 75 15 30 (21:00etatik aurrera)
- ◆ Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 07 86 (Nerea)

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna **ASTEAZKEN EGUERDIA** da.

Garajeak

- ◆ Pista Beltzaren azpian marradun garajea alokatzen da. ☎ 943 74 19 55
- ◆ Garajea salgai Leku Ederren, 4. solairuan, isteko egokia. nahi izanez gero alboko garaje indibiduala erosteko aukera. ☎ 943 74 03 81

Bestelakoak

- ◆ Taberna hartuko nuke errentan. Elgoibarren edo inguruan. ☎ 943 17 47 70
- ◆ Pasa den larunbat arratsaldean, plazan umeak dantzan ari ziren bitartean, gizon batek riñonera bat hartu zuen elizako arkupeetatik. Bertan umeen erlojuak, giltzak eta kartera bat zeuden. Hartu zuen gizonari lehenbailehen Udaletxean uzteko eskatuko nioke.
- ◆ Joan den asteburuan urrezko katea eta gurutzua galdu nituen. Jokin 09-05-99 dauka idatzita. Topatzen duenak deitu ☎ 943 74 25 09 telefonora.
- ◆ 4 urte dituen pastor aleman txakurra erregalatzan dut, zaindu ezin dudalako. ☎ 619 03 75 26/ 619 83 17 52
- ◆ Leire izena idatzita duen urrezko pultsera aurkitu nuen larunbatean Oraiko parean. ☎ 943 74 24 99 (Olatz)
- ◆ Paparreko jostorratza topatu dut. ☎ 943 74 16 60
- ◆ Emakumezko baten kartera galdu nuen diruarekin Urasandiko "Dia das Letras Galegas" jaietan. ☎ 943 74 28 38
- ◆ Ume baten urrezko pultsera aurkitu dut. ☎ 943 74 03 83

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Musika aparailua salgai, altzariarekin. Platoa, irratia, bi pletina eta ekualizadorea dauka. Prezio onean. ☎ 943 74 23 89
- ◆ Bi kateme persa salgai. ☎ 943 74 30 29 (Deitu 5etatik aurrera)
- ◆ Kanpin denda salgai. Familiarra da, 2-4 pertsonentzako. Toldoarekin eta montatzeko erraza. ☎ 943 74 05 37

Etxebizitzak

- ◆ 23 urteko gazte koadrila batek lokala alokatuko luke. Hilean 25.000 pezeta ordaintzeko prest gaude. ☎ 943 74 13 82
- ◆ Pisia alokatzen dut, altzariekin. San Frantzisko 12. ☎ 943 74 16 71 (Ana)
- ◆ Etxebizitza salgai, altzariekin. 4 gela, egongela-jangela, sukaldea, 2 komun eta trasteroa dauzka. Kanpoko aldera ematen du eta eguzkitsua da. Berritua. ☎ 943 74 40 31/943 74 14 54
- ◆ Pisia edo buhardila alokatuko nuke. ☎ 943 74 31 75
- ◆ Pisia alokatzen dut P.M. Urruzuno 8-1. ☎ 943 74 12 75
- ◆ Bungalowa alokatzen da Santa Polan (Alicante). Abuztua eta iraila. ☎ 943 74 12 13 (Gauze)

Agurrak

- ◆ Zorionak **prexioxi!** urteekin pertsonak pretaldu egiten direlakoan, eta, bai zera! gure Amaia gero eta umore hobearrekin etortzen da lanera. Ondo ondo pasau domekan. Lankideen partez.
- ◆ Zorionak **Leire Apellanizi**, ekainaren 3an urteak bete zituelako. Ibareren eta familiaren partez. Zorionak baita ere Ikastolako 6. mailako eta bereziki Gaztela eta Leonen partez.
- ◆ Zorionak **Idoiari**, maiatzaren 30ean urteak bete zituelako. Ikastolako 4. mailako eta bereziki Elixabeteren partez.
- ◆ Zorionak **Mireiari**, maiatzaren 30ean urteak bete zituelako. Ikastolako 4. mailako eta bereziki Leirearen eta Nerearen partez.
- ◆ Zorionak **Amaiari**, maiatzaren 22an urteak bete zituelako. Ikastolako 4. mailako eta bereziki Nerearen partez.
- ◆ Zorionak **Ibon Oteizari**, bihar, hilak 5, 14 urte beteko dituelako. D.B.H. 2ko bere lagun partez.
- ◆ Zorionak **Iruñe Alberdiri** eta bere senar **Juan Carlosi**, joan den ostiralean Ane izeneko ume polit baten guraso izan zirelako. Debemeneko lagun eta lankideen partez.
- ◆ Zorionak **Juakiri**, hilaren 3an urteak bete zituelako. Bere iloba Ileniaren eta Andrearen partez.

Agurrak



◆ Zorionak **Ion Belaustegiri**, joan den ostiralean, maiatzak 28, urteak bete zituelako. Familiaren eta bereziki anaia Ibonen partez.

◆ Zorionak **Ion Magrori**, maiatzaren 28an 2 urte bete zituelako. Osaba-izeben eta lehengusuen partez.



◆ Zorionak **Mª Eugeniari** eta **Davidi** ekainaren 12an bizitza gutzirako kontratua sinatuko dutelako. Ondo pasau lagun guztien partez.



◆ Zorionak **Anderri**, maiatzaren 27an 7 urte bete zituelako. Gurasoen eta anaia Pedronen partez.



◆ Mendaroko **poxxolina**, zu bai neska fina, baina piska bat sorgina, Eibar-kook belarritik tira egin nahi dizugu, baina eman gabe mina. Zorionak.



◆ Zorionak **Zaida Escollarri**, maiatzaren 27an 36 urte bete zituelako. Bere senararen eta alabaren partez.



◆ Zorionak **Aitorri**, igandean 3 urte beteko dituelako. Gurasoen, anaia Jokin eta amamaren partez. Zorionak baita ere tio Leori, hilaren 3an urteak bete zituelako.




◆ Zorionak **Nereari**, hilaren 7an 9 urte beteko dituelako. Familiaren eta bereziki Maidarren partez.

Elgoibarko Herri Institutuko eskaintza



LOGSE BATXILERGOAK A-D

- ▲ Natur eta Osasun Zientziak
- ▲ Giza eta Gizarte Zientziak
- ▲ Teknologikoa



ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ▲ Automozioa, ibilgailuen elektromekanika (2.000 ordu)
- ▲ Txapa eta pintura (2.000 ordu)
- ▲ Barne Merkataritza (1.400 ordu)
- ▲ Erizaintza laguntzailea (1.400 ordu) Eskaintza berria



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

- ▲ Administrazioa eta Finantzak (2.000 ordu)
- ▲ Ibilgailu Autopropultsatuen Mantenua (2.000 ordu)

Aurreinskripzioa: ekainaren 1etik 9ra

Tel: 943 74 80 19 · Faxe: 943 74 82 30 · E-posta: ifp.elgoibar@eas.servicom.es

haize berriak bultzatuz



bozkatu

